

BASOAK ETA EGURRA JASANGARRIA, EKONOMIKOA, SOZIALA ETA INGURUMENAREKIKO ADEITSUA DEN EREDU BAT BULTZATZEKO EZINBESTEKOAK DIRA

“Gure Basoa, Gure Zura, Gure Etorkizuna”, pinus radiatan banden gaixotasunaren eraginak eta eragin hauek kontrolatu eta murrizteko egiten ari diren tratamendu eta entseguak markatutako jardunaldia ospatzeko aukeratutako lema da

Bilbon, 2019ko uztailaren 5ean. “Gure Basoak, Gure Zura, Gure Etorkizuna” Euskadiko Egurraren Elkarteak Baskegur Eguna ospatzeko aukeratutako lema da. Azikulen banden gaixotasunaren hedatzearen poderioz sektorea pairatzen ari den egoera latzak markatzen duen edizioa da hau. Euskadiko Egurraren Elkarteak, onddo honen presentzia detektatu zenetik, gaixotasunarekin bukatu eta kontrolatzeko beste eragile guztiekin modu koordinatuan egindako lana nabarmendu nahi izan du.

Euskal basogintza sektorearentzako zuzeneko eraginak oso garrantzitsuak dira, izan ere pinus radiata, Euskadiko zuhaitzien azaleraren berreskurapenerako funtsezkoa izan baita, euskal zuhaitz-basoen azaleraren %32rekin aprobetxamenduen %81 eragiten duelarik, eta gure egurraren industriaren jardueraren %68a suposatzen duelarik. Euskadin soilik, sektore hau 40.000 pertsonen osatzen dute, 18.000 lanpostu eragiten ditu eta Euskadiko BPGren %1,5 suposatzen du, Egurraren Euskal Behatokiaren 2018ko Agiriaren datuen arabera.

LAN BATERATUA

Baskegurreko kide guztiak, Basozain elkarteetan hasi eta egurgintzako enpresa eta industrietara bitartean, elkarlanean ari dira, Foru Aldundiekin (baso-kudeaketako osagai gisa), Eusko Jaurlaritzarekin (landare-osasunaren ikerkuntzako arduradunak), NEIKERrekin eta HAZIrekin batera, Baso- Osasunaren alorrean Jarduketa Plan oso baten testuinguruan.

Baskegurreko zuzendari Oskar Azkaratek azpimarratu du, kobre-oxido basea duten lurreko tratamenduekin paraleloki, entsegu eta proiektu berritzaile desberdinak egiten ari direla, Euskadiko pinus radiataren baso-multzoaren %36ri min egiten dion onddoaren zabalkundea gelditzeko asmoz. Horren adibide, Kantabria eta Nafarroako -pinuen azikulen gaixotasuna pairatzen ari diren komunitateak- basogintza-egurgintza sektoreko beste elkarteekin lankidetzan egiten ari den INNOBANDAS proiektua. Proiektuak, mendietan egiten diren entseguen bitartez, produktu desberdinek gaixotasuna kontrolatzeko eraginkortasuna era iraunkortasuna zehaztu nahi du. Dagoeneko ezagunak diren kobre-oxidoa bezalako batzuk, baina baita olio esentzial, landare- estraktu eta bioestimulatzailuez osatutako beste batzuk ere.

Banden gaixotasunari jasanberak diren pinuen bilatzea, beste lan-ildo bat da. Lehen hautagaiak biderkatzen ari dira, ondoren gaixotasun hauen erasoei aurre egiteko maila baliozkotzeko.

GAIXOTASUNEN ETA ALDAKETA KLIMATIKOAREN ERRONKA

Gaixotasun eta izurriteak gero eta eragin handiagoa dute ekosistema desberdinetan, ez bakarrik basoetan. Hazkunde esponentziala, merkantzetan eta pertsonen mugimenduan, gure mendietan sartzen eta zabaltzen diren espezieentzako potentzialki

patogenoak diren organismo kopurua biderkatu dadila dakar. Bestalde, aldaketa klimatikoa, geroz eta sarriagoak diren muturreko gaitz meteorologikoak (lehorte-aldi luzeak, muturreko bero boladak, txingorra, haizeteak, etab.) sorten ari da. Gaitz hauek zuhaitzei min egiteaz gain zuhaitzak ahultzen dituzte, izurrite eta gaixotasun desberdinak geroz eta ugariagoak izan daitezela ahalbidetuz.

Azkaratek azpimarratu nahi izan du "egungo egoera korapilatsua da osasunaren ikuspuntutik eta epe labur zein ertainera, baso kudeaketa modu zuzenean baldintzatuko du, eta gerora begira, baita jarduera industrialaldintzatu ere. Ildo honetan, espezie berrien landatzea edo egurraren mobilizazio handiagoa aurre egin beharko diegun erronketako batzuk besterik ez dira".

"Nahiz eta egoera hau izan -argitu du-, Euskadin dugun lehengai natural eta berriztagarri ugariena duen sektoreaz ari gara, basogintza-egurgintza sektoreaz, alegia. Europan, bioekonomia zirkularraren alorreko protagonista den eta askotan mugimenduko buru den materialaz ari gara. Dagoeneko Europako erdialdean eta iparraldean errealitatea da".

PARADIGMA EKONOMIKO BERRIA

Baskegurrek, eragile desberdinen arteko Euskadiko lankidetzaren proiektu ezberdinetako buru da, gure inguruan egurraren erabilera sustatzeko asmoz, batez ere eraikuntzan. Gainera, bertako industriaren beharretara egokituko diren espezie berriak ikertzen eta zerrautsetik ateratako isolatzaile-aparra bezalako produktu berriak garatzen ditu.

Beste eragile pribatu eta publikoen artean ere, 2019 urte hasieraz geroztik euskal basogintza-egurgintza sektorearen I+G jardura osoa biltzen duen BASOTEK partzuergoko kide da.

Komunitate- fondoez eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak finantzaturako proiektuetan ere lanean dihardute, INNOBANDAS, edo WOOD CIRCUS-ek, azken hau, basogintza sektoreak bioekonomian duen papera sustatzeaz eta europar egurgintza sektorearen lehiakortasuna hobetzeaz arduratzen dena.

BASKEGUR EGUN ALDARRIKATZAILEENA

Baskegur Egunaren edizio berri bat ospatzeko aukeratutako lema "Gure Basoak. Gure Zura. Gure Etorkizuna", gizartean, ingurumen-, gizarte- eta ekonomia- aberastasun eragile bezala, bere papera aldarrikatzen duen sektorearen egungo egoera adieraz nahi du.

Euskadiko baso-lurren %58,3k jabea pribatua du. Bertako ugazabek, belaunaldi belaunaldi lanean dihardutenak euren zaintza eta kudeaketaz arduratzen dira. Beren lanari esker, egurraren salmentaren ondorioz eragindako errentagarritasun ekonomikoa eta gizarteak basoak erabili eta basoez gozatzeko aukera uztartu ahal izan dira. Horrela bakarrik lortu izan dugu baso-herria izatea, zuhaitzen ratioak, iparraldeko herrialdekoen antzekoak direlarik.

Euskal egurra gure egunerokotasunean presente dago eta euskal egurgintza enpresen kontsumoaren %68a suposatzen du, eta beste %28 hurbileko komunitateetatik ekarria da. Bertoko produktuak erabiltzeak ekonomia zirkularra sustatzen du eta industria indartsu baten eta egungo eta etorkizuneko erronkei egokitzeko gaitasuna duen industria mantentzera laguntzen du.

2019ko Baskegur Eguna arratsaldeko bostetan hasiko da Bilboko Untzi Museoko auditorioan eta Baskegurreko kideak bilduko ditu, baita sektorearen egungo egoera aztertuko dituzten ordezkari instituzionalak ere. Irene Baños kazetariak, Alemaniako Deutsche Welle kanalean lan egin eta ingurumenarekin erlazionaturako gaietan aditua denak konferentzia bat eskainiko du, Bioekonomiaren onurak baso-sektorearentzat" lemapean.

Ondoren, jardunaldia itxiko duen "Oraina eta geroa: Administrazioaren eta basogintza-egurgintza sektorearen arteko elkarrizketak" egingo da, Eusko Jaurlaritzako, giru Aldundietako eta basogintza-egurgintza sektoreko ordezkarien parte-hartzea izango duena. Zehazki, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politiken sailburuorde Bittor Oroz; Bizkaiko Jasangarritasun eta Ingurune Naturaleko diputatu Elena Unzueta; Arabako Nekazaritza zuzendari María Asunción Quintana; Gipuzkoako Mendi eta Inguru Naturaleko zuzendari Arantxa Aristimuño; Baskegurreko presidente Federico Saiz eta Euskadiko Basogintza Elkartearen Konfederakundeko ordezkari Jose Antonio Zabala.

Baskegurrek, Euskadiko basogintzako eta egurgintzako elkarte desberdinak biltzen ditu: ugazabetan hasi eta ustiakuntza, basogintzako lanak eta lehen eta bigarren transformazio prozesuetara arte, baita pasta-papera eta bioenergiara ere.

Cristina González Barrios.
Baskegurreko Prentsa Kabinetea
T. 687 47 50 16